

# EGUN ON MARITXU

**HAURTALDEA :** Talde osoa. Bi helduekin: bakotxak hartzen du talde erdia.

**TOKIA :** Atherbea, edo edozoin joko zelai batean.

**HELBURUA:** beste haur bat baino lasterrago ibili, bere tokia hartzeko.

**HIZKUNTZA:**

**NIK ZURI DIZUT-ZUK NIRI DIDAZU  
BAIEZKOA EZEZKOA**

**AURKEZPENA**

Haurrak ingurutxoan jarri dire, bat salbu , kanpoan egoiten dena(Peio).Honek ingurutxoaren itzulia egiten du eta norbaiten(Jon) bizkarrean jotzen du erranez: “kas, kas, kas”.

**Jon xutitzen da eta elkarrizketa hasten da bien artean :**

**Peiok :** « egun on Jon »

**Jon :** « egun on Peio »

**Peiok :** « zure tokia hartuko dizut »

**Jonek:** “laster egizu”.

Biak abiatzen dira korrika, ingurutxoaren itzulia egiteko asmoz baina bata alde batetik eta bestea bertaldera.Jonen tokian iristen den lehena irabazten du.

Peio baldin bada: “zure tokia hartu dizut” erran beharko du. Jon orduan berriz hasiko du jokia norbaiten tokia hartzeko.

Jon baldin bada: “ ez didazu hartu” erran beharko du. Eta Peiok beste txanda bat ukango du.Bainan bigarren ez bad u lortzen, ingurutxoaren erdian emanen da eta ez du gehiago jokoan parte hartuko.

**ONDORIOAK:**

- Jokoa berriz egin talde ttipiagorekin
- Eguneroko bizian “ dizut/didazu” egitura erabil. “prestatzen dizut” “min egin didazu”...